

COVID-19 PROTOKOLOA

SARRERA

ETXARRI ARANAZKO TXAKURKROSA Triku Trail Kirol Elkarteak antolatuko du (IFK: G71316681 Ikastola kalea 1, 31820 Etxarri Aranatz, Nafarroa), eta **EUSKADIKO TXAKURKROS LIGA (ETL)**ren barne puntuatuko du.

ANTOLAKETA ETA PROTOKOLOAK

1. COVID 19 PROTOKOLOA

Protokolo hau izanen da **Etxarri Aranazko Txakurkrosaren IV edizioaren** oinarrizko araudia. Protokolo honetan jasoa geratzen ez den aspektu, gertaera, arau edo dena delakoa argitzeko, **EUSKADIKO TXAKURKROSA LIGAKO (ETL)** arautegian oinarrituko da.

2. APARKALEKUAK

Etxarri Aranazko Txakurkroseko antolakuntzak bi aparkaleku egokituko ditu: Lehena (P1) 1.800 m^2-ko orube bat da, mendirako sarbidea ematen duen errepidearen zuzengune hasieran, eta bigarrena (P2 Autokarabanak eta furgonetak) 1.000 m^2-koa, Etxarri Aranazko kanpinaren sarreraren ondoko orube batean.

3. ARAU OROKORRA ETA MUSUKOAREN ERABILERA

Momentu oro antolatzaileen eta bolondrosen jarraibideei kasu eginen die parte-hartzaileak. Gainontzeko parte-hartzaile zein ikusle eta bolondresekin errespetu osoz jardun beharko du parte-hartzaile orok. Beharreko distantzia mantenduz.

Irteeraren, sarbidearen, dortsalen eskura-emate, itxaronaldien, beroketaren, irteerako eremuko egonaldiaren eta abarren aurreko denbora guztian, PARTE-HARTZAILE GUZTIEK MUSUKOA JANTZITA ERAMAN BEHARKO DUTE.

Musukoa irteeran jarria izan beharko da. Txakurrarekin lotzen gaituen linea aske utziko dugun puntutik pasatakoan kendu ahalko dugularik.

Puntu horretatik igaro ondoren, parte-hartzaile guztiek musukoa beren ekipoan gorde beharko dute, ondoren honako kasu hauetan erabiltzeko:

- Helmugara iristean, arkua igaro ondoren.
- Lehiaketan zehar erretiratzen bada.
- Lasterketako ibilgailuren batean igotzen denean.
- Laguntza medikoa behar duenean.

4. IZEN-EMATEAK

Izen-emateak Internet bidez egingo dira, Abenduaren 30etik (20:00etatik aurrera) Urtarrilaren 27ra, www.kronoak.com webgunean.

Parte-hartzaileek 18 € ordainduko dituzte. Inskripzioa ordaindu izanak proban parte hartzeko eskubidea emango du, eta erantzukizun zibileko eta istripuetako asegurua barne hartuko du. Inskripzioak ematen duen erantzukizun zibileko eta istripu-karrerako asegurua dortsalaren titularrentzat izango da.

Bi probatan izena emateko aukera egonen da. Bi probatan parte-hartzeagatik kirolariek 23 € ordainduko dituztelarik.

Urtarrilaren 27raino izen emateetan bajak onartuko dira. Kasu horretan ordaindutako dirua osorik itzuliko delarik. Data hortatik aurrera ez da inongo ez aldaketarik, ezta bajarik ere onartuko.

5. ALBAITARI KONTROLA, MATERIAL KONTROLA ETA DORTSALAK EMATEA

Albaitari kontrola eta dortsal banaketa lasterketa egunean Urtarrilaren 30a, goizeko 7:45tatik aurrera kanpiñeko harrera inguruan izanen dira.

Lehenik albaitari kontrola pasako da eta jarraian albaitarien oniritzia jasoa eta materialaren onarpena izanda, dortsala eskuratu ahalko dute parte-hartzaileek.

Osasun larrialdia dela eta bai albaitari kontrola zein dortsal ematean neurri bereziak hartuko dira, jende pilaketak saiestu asmoz. Kontrol gune hauen sarreran gel hidroalkoholikoaz eskuak garbitu beharko dira eremu horietara sartu ahal izateko. Parte-hartzaileek hilaran txandaren zain dauden bitartean, 1,5 metroko distantzia mantenduko dute aurrean duten parte-hartzailearekiko.

6. ALBAITARI KONTROLA

Albaitari kontrola pasatzeko derrigorrrezkoa da bertara txakurrarekin agertzea. **EUSKADIKO TXAKURKROS LIGAKO (ETL)** arautegian jasotako txertoak derrigorrez hartuak izanen ditu txakurrak lasterketan parte-hartu ahal izateko.

7. MATERIAL KONTROLA

EUSKADIKO TXAKURKROS LIGAKO (ETL) arautegiak jasotako derrigorrezko materiala erabili beharko da.

8. MODALITATEAK

Hiru modalitatez osatuko da **ETXARRI ARANAZKO TXAKURKROSAREN** IV edizioa:

1. Skooter edo patina.
2. Bikejoringa.
3. Txakurkrosa.

Hiru modalitateek ibibide berbera osatuko dute.

9. IRTEERA ETA HELMUGA EREMUA

Irteera eta helmuga puntua Etxarriko kanpiñaren instalakuntzetan kokatuko dira. Ala nola, lasterketako zerbitzu guztia, albitari kontrola, dortsal banaketa, helmugakoa anoa gunea...

10. LASTERKETAREN ORDUTEGIAK ETA TXANDAK

Antolakuntzak irteera txanda eta ordutegiak Urtarrilaren 29an iragarriko ditu.

- Skooter edo patinean eta Bikejoringean kirolariak banaka aterako dira 30´ko tartearekin. Goizeko 8:30tan emango zaio irteera bikejoring probari eta partaide guztiak irten eta gero, jarraian skooterreko partaideak hartuko dute irteera.
- Txakurkroseko probari 9:30tan emango zaio hasiera. Txakurkroseko partaideak 3nakako taldeetan hartuko dute irteera, 30´ko tartearekin taldeen artean.

Osasun larrialdia dela eta, parte-hartzaileen osasuna babestu eta bermatu asmoz, skooter eta bikejoringeko irteerak banaka eginen dira, baina irteera hartzeko zain dauden kirolarientzat, antolakuntzak lurrean 1,5 metroko distantziara puntutxoak markatuko ditu. Puntu horietan kokatuko direlarik antolakuntzako arduradunek hurrengo puntura mugitzea baimendu bitartean.

Txakurkroseko irteerak hirunaka eginen dira. Parte-hartzaile guztiak hiru ileratan banatuko direlarik. Hileratik hilerara 1,5 metroko distantzia izanen da. Hilera bakoitzean, irteera hartzeko zain dauden kirolarientzat antolakuntzak lurrean 1,5 metroko distantziara puntutxoak markatuko ditu. Puntu horietan kokatuko direlarik antolakuntzako arduradunek hurrengo puntura mugitzea baimendu bitartean.

11. IBILBIDEA

Ibilbideak 6kmko luzera eta 90mko desnibel positiboa dauka. Irteera eta helmuga Etxarriko kanpiñean kokatuko direlarik.

Antolakuntzak segurtasuna dela edo deritzon arrazoiagatik ibilbidea aldatzeko eskubidea izanen du azken momenturarte.

12. GOMENDIOAK LASTERKETAN ZEHAR

Kirolarien arteko segurtasun-tartea mantendu:

- Igoeretan: 5 metro.
- Jaitsieretan: 10 metro.
- Lautadetan: 10 metro.

Ez tu egin edo ez kendu mukiak beste pertsona batekiko gutxieneko distantzia gorde gabe.

Beste pertsona batzuekin kontaktu fisikoa ekidin.

Ezarritako araudi guztiak bete.

Korrikalari azkarragoak igarotzen lagundu egingo da; horretarako, aurreratu nahi duen korrikalariak, eremu zabala bada, alboz egingo du, abisua emanez eta 5 metro lehenago pasatzeko eskatuz. Bi korrikalariek pasatzeko maniobra erraztu behar dute, biak adi egonez. Pasatzen den korrikalariak maniobra hori abiaduraz egin beharko du.

Pasatzen zailak diren lekuetan ere, 5 metro lehenago abisatuko dira. Aurreratua izango den korrikalariak lagundu egin behar du: behar adina aldendu behar du, abiadura moteldu behar du, beharrezkoa bada gelditu egin behar du eta pasatzen den korrikalariari bizkarra eman behar dio; hau da, hurruntzea bultzatu eta lortu behar du.

Bidezidor oso estuetan eta itxietan, posizioari eutsi behar zaio, aurreratzea egin daitekeen leku batera iritsi arte. Aurreratu nahi duen korrikalariarekiko distantziak 2,5 metrokoa izan behar du (mugimenduan 2 metrotik gorakoa izan behar du).

Aurreratua izango den korrikalariak galgatzea edo pasabidea eragoztea saihestuko du.

Taldeka korrika egitea saihestuko da, antzeko erritmoan joan daitezke, baina beti bata bestearengandik 2,5 metroko distantziarekin.

13. ANOA-PUNTUAK

Elikagai solido zein likidoz osatutako anoa puntua ornituko da partehartzaileak helmugaratzen direnerako.

14. HELMUGA-GUNEA ETA HELMUGA-ONDORENA

Helmugara iristean, PARTE-HARTZAILE GUZTIEK MUSUKOA JANTZIKO DUTE. Jende pilaketak ekidingo dira eta helmugara iritsi ahala, bertatik aldenduko dira korrikalariak eremua libre utziz.

15. DUTXAK ETA KONTSIGNA

Dutxak kanpineko eraikinean kokatuak egonen dira. Hauetan jende pilaketak saiestuko dira. Aldagelatan aldi berean 8 pertsona baino ezingo dira egon.

Txakurrentzat mangera ere helmuga puntuan izanen da. GUZTIZ DEBEKATUA DAGO TXAKURREKIN GIZAKIEN DUTXATAN SARTZEA.

Ez da kontsigna zerbitzurik eskeiniko.

16. SARI BANAKETA

Sari banaketa lasterketak amaitu ondoren sailkapenak ofizialki iragarri eta jarraian eginen da. Kanpiñeko harrera eremuean eginen da sari banaketa.

17. ARAUAK

ETXARRI ARANAZKO TXAKURKROSEKO antolatzaileek lasterketatik bota ahal izango dute arauak betetzen ez dituen korrikalaria.

Antolakuntzako arduradunek aukera izango dute probatik kentzeko, arauak hausten dituen, markatutako ibilbidea bete ez duen, arauzko dortsala ondo ikusarazten ez duen, antolatzaileen oharrak betetzen ez dituen eta gainerako korrikalariekiko kirol-jarrera eskasa duen korrikalaria.

18. COVID-19 LASTERKETA ONDOREN

ETXARRI ARANAZKO TXAKURKROSEKO antolakuntzak ez ditu COVID-19aren lasterketa ondorengo kutsatzeak bere gain hartuko.

19. PROTOKOLOAN ALDAKETAK

ETXARRI ARANAZKO TXAKURKROSAREN antolakuntzak, protokolo hau beharrezko jotzen duen momentuan aldatzeko eskubidea erreserbatzen du. Beti ere, agintari ofizialengandik etorriko diren dekretuekin bat eginaz.

Etxarri Aranatz

2021eko Abenduaren 12a.